



## **ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO ARGIBIDEAK:**

### **2011KO MAIATZAKO INTERINITATE-ESKAINTZAK:**

**ERIZAINZA, ADMINISTRARI LAGUNTAILEA ETA ERIZAINZAKO LAGUNTAILEA**

#### **I. atala: Argibide Orokorrak**

##### **1.1 Prozedura**

Bakante eta lanpostu erreserbatuen (Bakanteen zerrendak) zerrendari dagokion aldi baterako kontratazio-eskaintza, Erizaintzako, Administrari Laguntzailearen eta Erizaintzako Laguntzailearen kategorietan, dokumentu honetan azaltzen den sistema elektronikoaren bitartez egingo da. Ez da onartuko paperean edo goian aipatutakoa ez den bestelako euskarriren batean egindako destino-aukeraketarik.

Sistema hau ez da ordezkapen-zerrendetarako erabiliko. Ordezkapenen zerrenda ospitaleek eta eskualdeek jarraituko dute kudeatzen.

##### **1.2 Eskaintako izendapenak**

Eskaintako izendapenen zerrenda eta horien ezaugarriak (kategoria, osasun-barrutia, zerbitzu-erakundea, modalitatea –erreserba, bakantea-, euskarako hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-data, lanaldia, hala badagokio, eta destino-kopurua) 2008ko Kontratazio-Zerrendak web orriko oharren atalean kontsulta daitezke (<http://lc2008.osakidetza.net>).

Zerrenda horietan jasotzen diren izendapenak gutxieneko kopuru bat dira, eta gerora hasieran eskaintakoen ezaugarri bereko beste izendapen batzuk ere esleitu ahal dira, destino bat hautatu dutenen artean.

##### **1.3 Izangaien zerrenda**

Kategoria bakoitzean eta barruti bakoitzean (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa), kontratazio-zerrendetan lanerako prest egonik eta beren hurrenkeragatik, izendapenak aukeratu ditzaketen pertsonen zerrenda alfabetikoa 2008ko Kontratazio Zerrenden web orriko oharren atalean kontsultatu daiteke (<http://lc2008.osakidetza.net>).

Destino guztiak aukeraketa-prozesu bakar batean betetzeko, eskaintako plazen kopurua baino izangai gehiago sartuko dira zerrendan.

##### **1.4 Lanpostuen aukeraketa**

Izangaien zerrendan agertzen diren pertsonen lanpostu guztiak aukeratu beharko dituzte, betiere nahi duten lehentasunaren arabera, norbere izenaren ondoan agertzen diren osasun-barrutietako baldintzak betetzen dituzten neurrian (baina



kontuz! hautaketa ez da ordezkapen-zerrendetarako izena eman zuen erakundeetara mugatu behar), baina honako hauek izan ezik:

a) justifikatzen dutenek, halakoetan ez baitute eskaintako lanposturik aukeratu beharko (1. atala).8)

b) nahitaez aukeratu behar ez dutenek, halakoetan interesatzen zaion (zaizkion) destinoa edo destinoak aukeratu baititzakete edo batere aukeratu ez (1.9 atala).

## 1.5 **Epea**

Destinoen aukeraketa elektronikoa egiteko epea hauxe izango da: 2011ko maiatzaren 10etik maiatzaren 19ko 14:00ak arte.

## 1.6 **Lanpostuak esleitzea**

Esleipena interesdunak interinitate-zerrendetan daukan posizioaren arabera egingo da eta betiere berak hautaketa elektronikoa adierazitako lehentasuna aintzat hartuta.

Ezin izango zaio uko egin esleitutako destinoei, eta horrek esan nahi du ez dela inolaz ere onartuko aukeratzeko azken egunaren (2011ko maiatzaren 19a) ondoren aurkeztutako justifikazio-dokumenturik.

Lanpostu-esleipen hori Kontratazioko web guneko oharren atalean argitaratuko da. Lanpostu horietan maiatzaren amaieran eta ekaina osoan zehar hasiko dira lanean.

## 1.7 **Lanpostua ez onartzearen edo ez aukeratzaren ondorioak**

a) Aukeratutako eta esleitutako kontratua onartu ezean (ukapena), dagokion bakante-zerrendetatik baztertuta geldituko da urtebetez, lehen aldia bada. Bigarren aldiz uko egin ez gero, 2008ko Kontratazio Zerrenden iraupen aldian, behin betiko baztertuta geldituko da bakante eta interinitateen zerrendetatik dagokion kategorian.

b) Aukeratzeko betebeharra izanik osasun-barrutiko baldintzak betetzen dituzten destino guztiak aukeratu ez baditu, edota lanpostuak eskatzen ez baditu, interesduna baztertuta geldituko da dagokion zerrendatik urtebetez, lehen aldia bada, betiere interinitate-zerrendetan duen posizioagatik kontratu bat tokatuko balitzaio. Aukeratzeko betebeharra izanik, bigarren aldiz aukeratu ez badu interesduna, behin betiko baztertuta geldituko da bakante eta interinitateen zerrendetatik dagokion kategorian.



## 1.8 Destinoak ez aukeratzeko justifikazioa

Eskaintako lanpostu bat ere ez dela aukeratzeko justifikatzeko eta kategoria bateko interinitate-zerrendetatik baztertua ez izateko, indarrean dagoen Kontratazioko Erabakiaren seigarren atala, bigarren puntuan aurreikusitako justifikazio-arrazoiren bat alegatu behar da. Eta horretarako, justifikazio-arrazoi hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da. Justifikazio-arrazoi bat da beste Administrazio Publiko batean lanean aritzea. Halakoetan, kontratua edo indarrean dagoen izendapena aurkeztu beharko da.

Justifikazio-dokumentazio hori ez da zertan aurkeztu destinorik aukeratzeko ez denean eta Osakidetzan bakante- edo interinitate-izendapen bat izanez gero edozein kategoriatan, sei hilabeteko edo gehiagoko aldi baterako edo ordezkio izendapena izanez gero Osakidetzan, edota aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratua indarrean izanez gero Osakidetzan.

Justifikatzeko epea: 2011ko maiatzaren 10etik maiatzaren 19ra arte. Dagokion justifikazio-dokumentua faxez (945 00 62 04) bidali behar da Osakidetza – 2011ko maiatzako interinitate-eskaintza atalera, eta bertan honako hauek adierazi behar dira: izen-abizenak, NANA, kategoria eta justifikazio-arrazoien aipamen labur bat.

Kontratazio Erabakian aurreikusten diren justifikazio-arrazoiak bakarrik hartuko dira kontuan, betiere lehen aipatutako epean alegatu eta egiaztatuta badira, eta izendapen-aukeraketarik egin ez bada.

## 1.9 Ez aukeratzea edo aukeraketa partzial bat egitea

Honako hauek nahi duten lanpostua edo lanpostuak bakarrik aukera ditzakete, edo destinorik aukeratu ez:

- a) Osakidetzan aurreko kontratazio-zerrendetako bakante/interinitate-izendapen bat indarrean daukatenean.
- b) Osakidetzan sei hilabete edo gehiagoko (luzapenak barne) aldi baterako edo ordezkio izendapena indarrean daukatenean, edo beste Administrazio Publiko batean aldi baterako lanean ari direnean.
- c) Osakidetzan aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratua indarrean daukatenean.

Osakidetzan lanean ari diren eta aukeraketa partzial bat egin duten edo batere aukeratu ez dutenen hiru kasu horietako pertsonak salbuetsita daude eta ez dute zertan egiaztatuta daukatenean izendapenaren dokumentazioa.

Aukeratzeko ez duen edo aukeraketa partziala egiten duen beste Administrazio Publiko pertsonalak Administrazio Publiko batean aldi baterako lanean ari dela egiaztatuta beharko du aurreko kasuren batean dagoela.



### **1.10 Kontratazio Zerrendetan berriro aktibatzea**

Ondorengo hauek bakanteen zerrendetan berriro aktibatzea eskatu beharko dute (behin justifikazio-arrazoia amaituta):

- 1.8 atalaren arabera, justifikazio-arrazoiren bat duelako eskainitako lanpostu bat ere aukeratzen ez dutenek.
- 1.9 atalaren arabera, aukeraketa partzial bat egin (ez ditu eskainitako eta bere baldintza guztiak betetzen dituen lanpostu guztiak aukeratu) eta horietako bat ere esleitu ez diotenenek.

Berriro aktibatzea eskatzeko 10 egun balioduneko epea dago, justifikazio-arrazoia bertan behera gelditzen denetik aurrera. Esaterako, berriro aktibatzea eskatu beharko du 10 egun balioduneko epean, indarrean zeukan kontratu-amaieratik aurrera edo beste edozein arrazoi justifikatu amaitzen denetik aurrera (esaterako, dagokion alta aurkeztuta).

Edonola ere, bakanteen zerrendetan berriro aktibatzea eskatu beharko dute zerrenda horien bitartez emandako izendapena amaitzen zaienek, 10 egun balioduneko epean, izendapen hori amaitzen denetik aurrera.



## II. Atala: izendapenak aukeratzea

### Izendapenak eskatzea

- 1.1. 2008ko kontratazio-zerrenden web orrian (<http://lc2008.osakidetza.net>), oharren atalean, “2011ko maiatzako interinitate-eskaintzarako Inskripzioak” izeneko ohar bat dago, 2008ko kontratazio-zerrendetako “kontsulta pertsonalizatuak” aplikaziora eramango zaituena, 2011ko maiatzako interinitate-eskaintzari dagozkion destino-aukeraketa egin ahal izateko.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo and the word "Osakidetza". Below it is a "Hasiera" button and language options "eu | es". A navigation menu on the left includes "Kontratazio-Zerrendak" with sub-items: "Informazio orokorra", "EPE 2006ko oinarriak", "Kategoriak Osakidetzan", "Eskabidea", "Zerrendak", and "Kontsulta pertsonalizatuak". A W3C WAI-A WCAG 1.0 logo is at the bottom left. The main content area has a header "Kontratazio-zerrendak" and "Listas de contratación" with a sub-header "Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua". The main heading is "Oharrak" with a date "2011/05/10". The notice title is "2011eko MARTXOAREN INTERINITATEEN ESKEINTZARAKO IZEN-EMATEAK". The text states: "2011eko Maiatzako Interinitateen eskeintzari dagokion destinoen aukeraketa 2008ko Kontratazio-Zerrendak \Kontsulta pertsonalizatuak aplikazioaren bidez egin behar da. Hemen sakatu aplikazio horretara sartzeko."



## 1.2. Tekleatu zure NANa, aukeratu letra eta sakatu “bidali”

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo, and at the top right is the euskadi.net logo. Below the logo is a navigation bar with 'Hasiera' and 'Laguntza' buttons. The main content area is titled 'Non: Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak'. On the left, there is a sidebar menu with 'Kontratazio-Zerrendak' and 'Kontsulta pertsonalizatuak' sections. The main content area is titled 'Sartzeko kontrola' and contains the following text: 'Identifikaziorako idatz ezazu bietako bat: NAN / Pasaporte (atzerriko nazionalitatea dutenentzat):'. Below this text is a form with three input fields: 'Egiaztagiri:' with a dropdown menu showing 'NAN', 'NAN:' with a text input field, and 'Letra:' with a dropdown menu showing 'A'. A 'Bidali' button is located to the right of the 'NAN:' field. At the bottom of the page, there is a footer with '» Informazio legala' and '© 2008. Osakidetza - Kontratazio-Zerrendak - Listas de Contratación'.



### 1.3. Pasahitza eskatuko dizu.

Pasahitza 2008ko kontratazio-zerrendetan eskabidea egiteko erabili zenuena da. Gogoratzen ez baduzu, aukera daukazu sarbide-kontrolako orri berean 2008ko kontratazio-zerrendetako eskabidean jarri zenuen e-mailera bidal diezazuten.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo. Below it is a navigation bar with 'Hasiera' and a language selector 'eu | es'. The main content area is titled 'Non: Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak'. On the left is a sidebar menu with 'Kontratazio-Zerrendak' and sub-items like 'Informazio orokorra', 'EPE 2006ko oinarriak', 'Kategoriak Osakidetzan', 'Eskabidea', 'Zerrendak', and 'Kontsulta pertsonalizatuak'. There are also W3C WAI-A WCAG 1.0 accessibility logos. The main content area is titled 'Kontratazio-zerrendak' and 'Listas de contratación'. Below this is the 'Sartzeko kontrola' section, which contains the form for requesting a password. The form has a label 'Pasahitza \*:' followed by a text input field with 10 dots. A 'Bidali' button is to the right of the input field. Below the form are two explanatory paragraphs and a note marked with an asterisk.

**Kontratazio-Zerrendak**

- >> Informazio orokorra
- >> EPE 2006ko oinarriak
- >> Kategoriak Osakidetzan
- >> Eskabidea

**Zerrendak**

**Kontsulta pertsonalizatuak**

W3C WAI-A WCAG 1.0

**Kontratazio-zerrendak** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua  
Listas de contratación

### Sartzeko kontrola

Pasahitzaren bidezko identifikazioa:

Pasahitza \*:

- 2006ko EPEn, garapen profesionalean, curriculum vitaen eta/edo lekualdatze-lehiaketan parte hartu duten langileek bere garaian erabili zuten pasahitz berbera izango dute oraingoan ere. Ez baduzu gogoratzen, jar zaitez harremanetan zure zerbitzu-erakundeko giza baliabideetako zuzendaritzarekin.

- Osakidetzako gainontzeko langileek euren pasahitza sortu beharko dute, gero berretsi beharko dutena. Gomendatzen da gogoratu eta leku seguruan gordetzea.

\* Ez baduzu pasahitza gogoratzen, eska dezakezu eskabideko galdetegian zehaztu zenuen posta elektronikoko helbidera bidaltzeko, hemen klik eginez.



- 1.4. Identifikatu ondoren, menu batera ailegatuko zara. Bertan 2008ko kontratazio-zerrendetan izena eman zenueneko kategoria guztiak agertuko dira. Aukeratu 2011ko maiatzako interinitate-eskaintzan hautatu behar dituzun izendapenak.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo. Below it is a navigation bar with a 'Hasiera' button. The main content area is titled 'Non: Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak'. On the left, there is a sidebar menu with the following items: 'Kontratazio-Zerrendak', '>> Informazio orokorra', '>> EPE 2006ko oinarriak', '>> Kategoriak Osakidetzan', '>> Eskabidea', a dark blue bar, '>> Zerrendak', and '>> Kontsulta pertsonalizatuak'. At the bottom of the sidebar is a W3C WAI-A WCAG 1.0 logo. The main content area features the 'Kontratazio-zerrendak' logo and the text 'Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua' and 'Listas de contratación'. The main heading is 'Kontsulta pertsonalizatuak: Kategoria aukeratu'. Below this, there are two sections for selecting a category: 'Kategoria / lanpostu funtzionala: ERIZAINA' and 'Kategoria / lanpostu funtzionala: ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA'. A mouse cursor is pointing at the 'ERIZAINA' link.





1.5. Sakatu lehen aipatutako kategoria, aukeratu behar duzuna, eta sakatu “Destinoak aukeratu -Eskabidea” atalean.

**Osakidetza**

Hasiera

eu | es

Non: Hasiera > Norberari egokitutako kantsultak > Kategoria aukeratu > Menu Kantsulta pertsonalizatuak

**Kontratazio-Zerrendak**

- >> Informazio orokorra
- >> EPE 2006ko oinarriak
- >> Kategoriak Osakidetzan
- >> Eskabidea

**Zerrendak**

- >> **Kantsulta pertsonalizatuak**

W3C WAI-A WCAG 1.0

**Kontratazio-zerrendak** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua  
Listas de contratación

### Menu Kantsulta pertsonalizatuak

**Eskabidea:**

- Kantsulta
- Aldaketa
- Baliogabetze

**Kantsulta elektronikoak:**

- Ikusi

**Destinoak aukeratu:**

- Eskabidea / Aldatu



1.6. “Eskainitako zentroak” atalean kategorian eskainitako destino guztiak azaltzen dira.

1.7. Eskainitako destino bakoitzak honako informazio hau dauka:

Plaza bakantea/plaza erreserbatua (\*)  
Zerbitzu-erakundea eta/edota destino-zentroa  
Derrigortasun-datadun hizkuntza-eskakizuna duten destinoen kopurua  
Lanaldia, hala dagokionean  
Destinoen kopuru osoa

(\*) Plaza erreserbatuetan titularraren egoera adieraziko da erreserbarako:

Zerbitzu-eginkizunak edo antzekoak (ZE)  
Aldi baterako sustapena edo kategoría goragoko egitekoak (ABS/KGE)  
Senideak zaintzeko eszedentzia (SE) (  
Sindikatu-liberazioa (SL)  
Zerbitzu Bereziak (ZB)

Adib.: *Bakantea, Basurtuko Ospitalea, 3-2HE-05/06/01, 1-2HE-2012/06/01, 10 destino.*

Destino honen informazioak adierazten dizu Basurtuko Ospitalean 10 lanpostu bakante eskaintzen direla, horietatik 3k 2HE dutela 2005/06/01 datarekin (2HE hori derrigorrezkoa da), lanpostu 1ek 2HE daukala 2012/06/01 datarekin (2HE ez da derrigorrezkoa) eta 6 lanpostuk ez dutela derrigortasun-datarik (HE ez da derrigorrezkoa).

Destino hau aukeratuz gero, Basurtuko Ospitaleko lanpostu bakanteetarako hautua egingo duzu, 10 lanpostutarako aukera duzularik 2008ko Kontratazio-zerrendetan 2HE egiaztatuta edukiz gero, eta 7 lanpostutarako 2008ko Kontratazio-zerrendetan 2HE egiaztatuta ez badaukazu.

1.8. Eskainitako lanpostuak norberak nahi duen lehentasunaren arabera hautatu behar dira.

“Aukeratutako zentroak” atalean, zeuk hautatutako destinoen zerrenda agertuko da, hautaketaren lehentasunaren arabera sailkatuta (1 lehenengo hauturako, 2 bigarren hauturako, etab.).

1.9. Destino bat aukeratzeko, “Eskainitako zentroak” atalean agertzen direnen artean sakatu nahi duzun destinoaren gainean, eta dagokion botoian sakatu “Aukeratutako zentroak” atalean hautatutako destinoen zerrendara pasatzeko.

1.10. Destinoen hautaketa amaitutakoan, “Zinpean edo hitz emanaz adierazten dut” laukitxoan sakatu eta ondoren sakatu “Onartu”.



## Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

### Eskainitako zentroak aukeratzea / Centros ofertados

08epe-bak. ondoriozkoa-, deba garaiko ospitalea-2 destino batzuk  
08epe-bak. ondoriozkoa-, lezako ospitalea-2 destino batzuk  
08epe-bak. ondoriozkoa-, txagorritxuko ospitalea-3 destino batzuk  
err-ls, deba garaiko ospitalea-1 destino  
err-ze eta antzekoa, deba garaiko ospitalea-5 destino batzuk  
err-ze eta antzekoa, lezako ospitalea-1 destino  
err-ze eta antzekoa, santiago ospitalea-4 destino batzuk



### Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados

1.- 08epe-bak. ondoriozkoa-, santiago ospitalea-1 destino  
2.- bak-, deba garaiko ospitalea-1 destino  
3.- bak-, txagorritxuko ospitalea-7 destino batzuk  
4.- err-bs-kgeb, santiago ospitalea-1 destino  
5.- err-fe, deba garaiko ospitalea-1 destino  
6.- 08epe-bak. ondoriozkoa-, gip. eki. esk.-zumaia (oz)-1 destino-Espezifikoa-1-2HE-0  
7.- bak-, santiago ospitalea-3 destino batzuk  
8.- err-ze eta antzekoa, gip. eki. esk.-pasai san pedro (oz)-1 destino-Goizez-1-2HE-10



Honakoa sinatzen duenak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio destino-hautaketa hau onar dakion. Era berean, dagokion ardurapean adierazten du deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela destino-hautaketa hau egin ahal izateko eta, hala eskatzen zaionean, eskabidean agertzen diren datu guztiak agirien bitartez egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela.

ZINPEAN EDO PROMES EGINEZ ADIERAZTEN DUT

Eskabide honetan eskatutako datuak betetzean, berariaz adierazten dut Osakidetzak baimen osoa duela datu horiek Osakidetzako Pertsonaleko Hautaketa eta Horniketara izeneko Datu-Basean sartzeko eta ondoren tratatzeko. Baimen horren baitan sartzen da datu horiek erabiltzeko aukera, partehartzea eskatzen den lehiaketa-prozesuaren garapenerako. Sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta oposizioa egiteko eskubideak fitxategiaren arduradunarekin erabili ahalko dira: OSAKIDETZA-Euskal osasun zerbitzua, Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

Baieztatzea / Confirmar





1.11. Alta behar bezala eman izanaren abisua agertu behar zaizu eta egiaztageria inprimatu ahal izango duzu.

**Osakidetza** EUS

Hasiera

eu | ES

**Non:** Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak > Kategoria aukeratu > Menua Kontsulta pertsonalizatuak > Destinoak aukeratzea: Kontsulta

**Kontratazio-Zerrendak**  
» Informazio orokorra  
» EPE 2006ko oinarriak  
» Kategoriak Osakidetzan  
» Eskabidea

**Kontratazio-Zerrendak**  
» Zerrendak  
» **Kontsulta pertsonalizatuak**

W3C WAI-A WCAG 1.0

**Kontratazio-zerrendak** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua  
**Listas de contratación**

### Destinoak aukeratzea

Elección de destinos

**Kategoria - Espezialitatea / Categoría - Especialidad**

**Kategoria - Lanpostu funtzionalaren kodea / Código categoría - puesto funcional**  
B14505

**Kategoria - Lanpostu funtzionalaren izena / Nombre categoría - puesto funcional**  
ERIZAINA

**Norberaren datuak / Datos Personales**

**NAN / DNI** **Izena / Nombre**

**Mensaje de página web**

Alta ondo egin duzu.  
Frogagiri bat inprimatu nahi baduzu, orain egin dezakezu.

Aceptar

1959/01/29



## Destinoak aldatzea

1.1. Sakatu “Destinoak aukeratu: Aldatu” atalean.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo and a 'Hasiera' button. Below it are language options 'eu | es'. A breadcrumb trail reads: 'Non: Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak > Kategoria aukeratu > Menua Kontsulta pertsonalizatuak'. On the right, there is a 'Kontratazio-zerrendak' logo and text: 'Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua'. The main content area is titled 'Menua Kontsulta pertsonalizatuak'. It contains three sections: 'Eskabidea:' with buttons for 'Kontsulta', 'Aldaketa', and 'Baliogabetze'; 'Kontsulta elektronikoak:' with a button for 'Ikusi'; and 'Destinoak aukeratu:' with buttons for 'Eskabidea / Aldatu', 'Kontsulta', and 'Destino guztiak baliogabetu'. A mouse cursor is pointing at the 'Kontsulta' button in the 'Destinoak aukeratu:' section. On the left side, there is a 'Kontratazio-Zerrendak' sidebar with links to 'Informazio orokorra', 'EPE 2006ko oinarriak', 'Kategoriak Osakidetzan', 'Eskabidea', 'Zerrendak', and 'Kontsulta pertsonalizatuak'. At the bottom of the sidebar is a 'W3C WAI-A WCAG 1.0' accessibility logo.

1.2. Pantailan une horretara arte egin duzun destinoen hautaketa agertuko da.

1.3. Hala nahi izanez gero, “Aukeratutako zentroak” ataleko zerrendan destinoak gehitu edo kendu ahal dituzu, edo baita berriro ere sailkatu zuk nahi duzun lehentasunaren arabera.

1.4. Amaitzen duzunean, “Zinpean edo hitz emanez adierazten dut” laukitxoan sakatu eta ondoren sakatu “Onartu”.

1.5. Alta behar bezala eman izanaren abisua agertu behar zaizu eta egiaztagiria inprimatu ahal izango duzu.



## Destinoak kontsultatu

- 1.1. Sakatu “Destinoak aukeratu: Kontsulta” atalean
- 1.2. Pantailan une horretara arte egin duzun destinoen hautaketa agertuko da.
- 1.3. Hala nahi izanez gero, egiaztagiria inprimatu ahal izango duzu

**Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados**

**Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados**

- 1.- 08epe-bak. ondoriozkoa-, santiago ospitalea-1 destino
- 2.- bak-, deba garaiko ospitalea-1 destino
- 3.- bak-, txagorritxuko ospitalea-7 destino batzuk
- 4.- err-bs-kgeb, santiago ospitalea-1 destino
- 5.- err-fe, deba garaiko ospitalea-1 destino
- 6.- 08epe-bak. ondoriozkoa-, gip. eki. esk.-zumaia (oz)-1 destino-Espezifikoa-1-2HE-09/12/01
- 7.- bak-, santiago ospitalea-3 destino batzuk
- 8.- err-ze eta antzekoa, gip. eki. esk.-pasai san pedro (oz)-1 destino-Goizez-1-2HE-10/06/01

Honakoa sinatzen duenak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio destino-hautaketa hau onar dakion. Era berean, dagokion ardurapean adierazten du deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela destino-hautaketa hau egin ahal izateko eta, hala eskatzen zaionean, eskabidean agertzen diren datu guztiak agiriaren bitartez egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela.

x ZINPEAN EDO PROMES EGINEZ ADIERAZTEN DUT

Eskabide honetan eskatutako datuak betetzean, berariaz adierazten dut Osakidetzak baimen osoa duela datu horiek Osakidetzako Pertsonaleko Hautaketa eta Horniketa izeneko Datu-Basean sartzeko eta ondoren tratatzeko. Baimen horren baitan sartzen da datu horiek erabiltzeko aukera, partehartzea eskatzen den lehiaketa-prozesuaren garapenerako. Sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta oposizioa egiteko eskubideak fitxategiaren arduradunarekin erabili ahalko dira: OSAKIDETZA-Euskal osasun zerbitzua, Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

**Erregistratze-data / Fecha de registro: 2011/05/10**



## Destino guztiak ezabatzea

1.1. Sakatu “Destino guztiak ezabatzea” atalean.

1.2. Bi aldiz eskatuko dizu ezabatzea baieztatzeko eta ondoren zure destinoak ezabatu direla adierazteko oharra agertuko da.

**GARRANTZITSUA:** destino-aukeraketa ezabatzen baduzu, ziurtatu berriro ere aukeraketa egiten duzula. Bestela, dagokion destino-aukeraketa egin gabe epea igarota, destino-aukeraketa egin nahi ez duzula ulertuko da eta Argibide Orokorretako 1,7 eta 1.9 ataletan aurreikusten diren ondorioak izango dira.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. The main content area displays the heading "Destinoak aukeratzea: baliogabetu" (Deleting destinations: deactivating) and the question "Aukeratu dituzun destinoak baliogabetu egingo dituzu, jarraitu nahi duzu?" (You will deactivate the destinations you have selected, do you want to continue?). There are two buttons: "Onartu / Aceptar" (Accept) and "itzuli" (Cancel). A "Mensaje de página web" (Web page message) dialog box is overlaid on the page, asking "Eskabideko destinoak baliogabetuz gero, eskabidea osoak ez du balio, jarraitu nahi duzu?" (After deactivating destinations, the request is no longer valid, do you want to continue?). This dialog has "Aceptar" and "Cancelar" buttons. The left sidebar contains navigation links for "Kontratazio-Zerrendak" (Contract lists) and "Kontsulta pertsonalizatuak" (Personalized queries). The top navigation bar includes "Hasiera" (Home) and language options "eu" and "es".